



Erabakita dagoeneko Euskal Kazetarien Elkarteko eta Kazetarien Euskal Elkargoko 'Euskal Kazetaritza Sariak 2017'ko sarituak

- Ane Irazabal, Gervasio Sánchez, Mariano Ferrer, Iñaki Iriarte, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia eta Mikel Iturralde izan dira aurtengo sarituak

Bilbo, 2017ko azaroak 8.- Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak antolatutako 'Euskal Kazetaritza Sariak 2017', BBKren, Euskaltelen eta Bilboko Udalaren babesarekin, eta LOGI Expressen laguntzarekin egin direnak, badituzte irabazleak:

Ane Irazabalek "Euskal Kazetariak" ataleko saritua izan da; "Adierazpen Askatasunaren José María Portell" a **Gervasio Sánchezi** egokitu zaio; "Ibilbide Profesionala"ren saria, **Mariano Ferrer eta Iñaki Iriarteri**; "Pertsonaia edo Giza instituzioa"ren saria, **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiarentzat** izan da eta "Kazetaritza Digitala", **Mikel Iturralderentzat** 'Treneando' blogagatik. Sarituak, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat komunikabideetako ordezkariak osatutako epaimahai batek aukeratu ditu.

"Euskal Kazetariak" Saria

Kategoria honetako sariduna **Ane Irazabal** izan da, guda eta gatazka zonaldeetan egindako sekulako lanagatik.

Sari honen seigarren edizioa da eta bere helburua gure lanbiderako adibide eta hantustea den EAEko informazioaren profesional bat omentzea da, Euskadin, maila nazionalean edota nazioartean egindako lanagatik.

2007.urtean (1.edizioan) Manu Leguinechek jaso zuen saria, 2009an (2.edizioa) Sarita Estévezek, 2011n (3.edizioa) Iñaki Gabilondok, 2015ean (4.edizioa) Mikel Ayestaranek eta 2016an (5.edizioa) Jon Sistiagak.

Adierazpen Askatasunaren José María Portell Saria

Sari hau, bere bosgarren edizioan, **Gervasio Sánchezek** eskuratu du gatazka armatuetan egindako lanagatik eta bere giza-sentikortasuna eta baita gudaren laztura salatzeagatik ere.

Lehen edizioan (2008) Elena Tregúbova kazetari errusiarrak jaso zuen saria. Kremlinetik kazetaritza uzteko presio izugarriak jaso ondoren eta bere etxearen aurrean lehergailu batek eztanda egin ostean, Erresuma Batura erbesteratu zen.

Bigarren edizioan (2010) Terry Gould kazetari eta idazle amerikarra zan zen saritua, nazioarte mailan kazetaritzaren bozeramaile eta defendatzaile dena.

Hirugarren edizioan (2015) kazetari mexikarren kolektiboak eskuratu zuen sari hau, narkotrafikoaren kontra egindako ikerketa eta salaketa lanagatik.

Laugarrenean (2016) kazetari turkoen kolektiboak eskuratu zuen 2016ko uztailaren 15ean arrakastarik izan ez zuen kolpe militarren ondoren jasandako jazarpen, eraso eta errepresioagatik.

Ibilbide Profesionalari Saria

Hirugarren edizioko sarituak **Mariano Ferrer eta Iñaki Iriarte** izan dira, EGIN eta DEIA egunkariaren jaiotzaren 40.urteurrenagatik, hauek izan baitziren egunkariotako lehen zuzendariak, hurrenez hurren.

Sari honen lehen edizioko irabazlea María Jesús Gandariasbeitia izan zen eta bigarren edizioan, **María Josefa Marzo** izan zen saritua

Pertsonaia/Giza instituzioari Saria

Aurtengo saritua **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa** izan da komunikabideekin duten harremanagatik eta komunikazio on bat dela eta, euskal kulturaren zati bat berreskuratzeagatik.

Aurreko urteetako sarituak STOP Sanfilippoko Naiara García de Andoin (2015) eta Hodeiren Bila Plataforma (2016) izan ziren.

"Kazetaritza Digitala" Saria

Laugarren edizio honetako saritua **Mikel Iturraldere**n 'Treneando' bloga izan da.

Lehen edizioko saritua Begoña Beristain izan zen (2015) eta bigarren ediziokoa, **Iker Merodio** (2016).

Ekitaldian ere **Antton Olariaga** omenduko dugu eta bere **ZAKILIXUT** pertsonaia, honen jaiotzaren 40.urteurrenagatik.

Sari hauetako epaimahaikideak hurrengo hauek izan dira: Jesús Coterón, EKEko presidentea eta KEEko dekanoa; Carmen Torres Ripa, kazetaria; Arturo Trueba, EKEko presidenteordea eta KEEko idazkari orokorra; Amaia Goikoetxea, KEEko dekanordea; Nekane Vado, EKEko idazkari orokorra eta KEEko diruzaina; Simón Peña, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko dekanoa; Martxelo Otamendi,

Berriako zuzendaria; Joxe Rojas, TOKIKOMeko IKT eta Komunikazio zuzendaria; Pedro Briongos , El Correoko zuzendariari atxikitua; Kike Santarén, Deiaiko zuzendariari atxikitua; Aitor Guenaga, eldiarionorte.es-eko zuzendaria; Matxalen García, Europa Press Euskadiko ordezkaria; Txema Villate, EFEko ordezkaria Bilbon; Andoni Aranburu, EITBko estrategia eta komunikazio zuzendaria; Ángel López, Onda Vascako zuzendaria; Federico Merino, Radio Popularreko zuzendaria; Juan Carlos de Julián, Onda Cero Euskadiko informatiboen koordinatzailea; Begoña Marañón, Cadena SERreko zuzendaria; Jon Kepa Idoyaga, RNE España-Bilbaoko arduraduna; Iñaki Soto, Garako zuzendaria; Enrique Campos, Grupo Nervióneko zuzendaria; Sonia Egea, BBK-ko Komunikazio teknikaria eta Iztartza Zorroza, Euskalteleko Institutuzio Harremanetako eta Babesen arduraduna.

'Euskal Kazetaritza Sariak 2017' datorren **azaroaren 20an** emango dira arratsaldeko **19:30ean** Bilboko BBK Salan (Gran Vía).

Alda. San Mamés, 37 – 4º Dpto.6 - 48010 BILBAO - Tfno: 94 410 60 40 - www.kazetariak.eus
info@kazetariak.eus

Kazetariak.^{eus}